

Prekaritateari aurre egiteko, gutxieneko soldata Nafarroan erabaki! Parlamentuaren debekuen gaintetik, mobilizatu eta sinatu!



ELA, LAB, ESK, Steilas, Hiru eta Etxalde sindikatuok Hego Euskal Herriko langileentzako gutxieneko soldata propio bat lortzeko prozesua martxan jarri dugu. CEN, CCOO, UGT eta Nafarroako Parlamentuak eztabaida gabe utzi nahi dituzte Nafarroako langileak. CENek ez dio uko egin nahi aberastasunaren pilaketari, CCOO eta UGTk ez dute onartzen Nafarroako langileentzat EAEn onztat ematen dutena eta Nafarroako Parlamentuak Herri Ekimen Legegilea debekatu nahi izan du.

Debekuei aurre egingo diegu mobilizazio bidez eta are sinadura gehiago bilduta. Sindikatuok argi dugulako Nafarroako langileek gutxieneko soldata propio bat behar dutela. Gutxieneko soldata aberastasuna banatzeko eta kohesio sozialerako mekanismoa da, pobrezia mugaren azpitik dauden pertsona kopurua murrizten du eta legezko lan-baldintzak baino hobeak dituzten sektoreetan soldaten goranzko negoziazioa bultzatzen du. Horregatik behar dugu euskal langileen beharren arabera gutxieneko soldata ezartzea.

Espainiako LGS nahikoa da?

Ondasunen prezioa izugarri garestitzen ari da, azken 5 urteetan Nafarroan etxebizitzaren prezioa %26 hazi da eta alokairuarena %46. Bada Espainiako LGS 2025ean, hiru urte ondoren, 16.576 eurokoa da (hilean 1.184 euro).

Beste herrialde batzuetako LGS zenbatekoa da?

Ekonomiaren bilakaera aztertzeko erabiltzen den BPGak ez dituela bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lan erreproduktiboak aintzat hartzen, horregatik eskatzen dugu zaintza lanak aitortu eta banatzea. Sortzen den aberastasunaren ikuspegi murriztailea ematen da, eta aberastasun hori geroz eta modu desorekatuagoan banatzen da, soldatek duten pisua urte urte murrizten ari da. Hori esanda, beste herrialde batzuekin alderatzen badugu, Hego Euskal Herriko antzeko aberastasuna sortzen den herrialdeetan LGS askoz altuagoa da (12 ordainsaritan): Alemanian 2.161, Frantzia 1.801,8, Britainia Handian 2.230,9 (2024ko datua), Belgikan 2.070,5, Luxenburgon 2.637,8, Herbeereetan 2.193,4, Irlandan 2.281,5 edo Islandian 2.830,5.

Nori eragingo dio LGS altuago batek?

Enplegua duten langile guztiei. Gutxieneko soldatak igotzen direnean lan prekarioenak pairatzen dituzten langileen soldatak zuzenean igotzen dira (berezi emakumeenak, pertsona migratuenak, aniztasun funtzionala dutenenak eta gazteenena), Nafarroan milaka langileri eragingo lieke igoerak. Baina gutxieneko soldata igotzen denean langile guztien soldata igotzeko presioa sortzen da.

Baina estatu batean hainbat gutxieneko soldata egon daitezke?

Badira hainbat estatu bere barnean gutxieneko sol-

data ezberdinak dituztenak, adibidez: Indonesia, Kanada, Estatu Batuak, Japonia, Errusia, Brasil edo Alemania.

Zergatik eskatu orain gutxieneko soldata propio bat?

Espainian gutxieneko soldatak oso baxua izaten jarraituko du, enpresak inoizko irabazi handienak piltzen ari dira eta bien bitartean oinarritzko ondasunen prezioa izugarri garestitzen ari da (etxebizitza, gasolina, elikagaiak...). Bizitzaren garestitzeari aurre egiteko gutxieneko soldata hemen erabaki behar dugu.

Nafarroako langileek sarritan erakutsi dute borondate berezitu bat, hauteskunde sindikaletan esaterako. Era berean, Hego Euskal Herriko langileak dira mobilizazio eta greba gehien antolatzen dituztenak. Nafarroako langileek bizitzaren garestitze altuago bati aurre egin behar diela gehitu behar da. Zentzu horretan, nafar langileen soldata eta bizi baldintzak hemen erabaki nahi ditugu, eta gutxieneko soldata propio bat izatea lan harremanetarako euskal esparrua eratzeko aurrerapausoa izango litzateke, gizartearen gehiengoaren bizi baldintzak hobetuko dituena aberastasunaren banaketa justuago baten bidez.

Nola lor dezakegu gutxieneko soldata propioa ezartzea?

Patronalak ez du bere esku zegoena egin nahi izan, CCOO eta UGTk Nafarroako langileei bizkar eman diote eta Nafarroako Parlamentuak eztabaidari beldur dio. Mobilizazio bidez iritzia aldatzera eraman nahi ditugu eta, era berean, Nafarroako alderdi politikoi milaka sinadura eramango dizkiegu, beren esku dagoena egin dezaten Langileen Estatutua aldatzeko proposamena martxan jartzeko.

MANIFESTAZIOA

Apirilaren 5ean, 18.00 Baluarte Plaza (Iruña)



Para hacer frente a la precariedad ¡el SMI se decide en Navarra!

¡Frente a la prohibición del Parlamento, movilízate y firma!



Los sindicatos ELA, LAB, ESK, Steilas, Hiru y Etxalde hemos puesto en marcha el proceso para establecer un salario mínimo propio para los trabajadores y trabajadoras de Hego Euskal Herria. CEN, CCOO, UGT y el Parlamento de Navarra quieren dejar a las y los trabajadores de Navarra sin debate. CEN no quiere renunciar a la acumulación de riqueza, CCOO y UGT no aceptan para los y las trabajadoras de Navarra lo que en la CAV consideran adecuado, y el Parlamento de Navarra ha querido prohibir la Iniciativa Legislativa Popular (ILP).

Haremos frente a las prohibiciones movilizándonos y recogiendo aún más firmas. Los sindicatos tenemos claro que las y los trabajadores navarros necesitan un salario mínimo propio. El salario mínimo es un mecanismo para repartir la riqueza y para la cohesión social, reduce la población que subsiste por debajo del umbral de pobreza, e impulsa al alza la negociación salarial en los sectores con condiciones laborales mejores que las fijadas por ley. Por eso necesitamos establecer un salario mínimo acorde a las necesidades de la clase trabajadora de nuestro país.

¿Es suficiente el salario mínimo de España?

El precio de los bienes está aumentando enormemente, en los últimos 5 años, el precio de la vivienda en Navarra ha subido un 26% y el de los alquileres un 46%. Sin embargo, el salario mínimo en España en 2025, tres años después, es de 16.576 euros (1.184 euros al mes).

¿A cuánto asciende el SMI en otros países?

El PIB, que se utiliza para analizar la evolución de la economía, no tiene en cuenta los trabajos reproductivos esenciales para la vida, por lo que pedimos que se reconozcan y distribuyan los cuidados. Se presenta una visión reduccionista de la riqueza generada, y esta riqueza se distribuye de manera cada vez más desproporcionada, reduciéndose el peso de los salarios año tras año. Dicho esto, si lo comparamos con otros países, en estados donde se genera una riqueza similar a la de Hego Euskal Herria el SMI (en 12 pagas) es mucho más alto: en Alemania 2.161, en Francia 1.801,8, en Gran Bretaña 2.230,9 (datos de 2024), en Bélgica 2.070,5, en Luxemburgo 2.637,8, en los Países Bajos 2.193,4, en Irlanda 2.281,5 y en Islandia 2.830,5.

¿A quién beneficiaría un SMI más alto?

A todas las personas trabajadoras con empleo. Cuando se mejora el salario mínimo el sueldo de la gente con empleo más precario sube directamente (en especial el de las mujeres, migrantes, personas con diversidad funcional y jóvenes). En Navarra, miles de trabajadoras y trabajadores se verían afectados por el aumento. Pero además, cuando se incrementa el salario mínimo se genera una presión para mejorar el salario de todo el mundo.

¿Puede haber más de un salario mínimo en un mismo Estado?

Sí, hay varios Estados en los que existen salarios mínimos de diferente cuantía dentro de su territorio,

como Indonesia, Canadá, EEUU, Japón, Rusia, Brasil o Alemania.

¿Por qué se debería reivindicar ahora un salario mínimo propio?

En España el salario mínimo seguirá siendo muy bajo, precisamente en un momento en que las empresas están acumulando los mayores beneficios de la historia y los precios de los bienes básicos se han disparado (vivienda, gasolina, alimentos...). Para hacer frente a esa subida del coste de la vida tenemos que decidir aquí el salario mínimo.

Las trabajadoras y trabajadores de Navarra manifiestan una voluntad diferenciada con frecuencia, por ejemplo, en las elecciones sindicales. Asimismo, la clase trabajadora de Hego Euskal Herria es la que protagoniza más movilizaciones y huelgas. Por otra parte, hay que decir que la subida de precios que afrontan las trabajadoras y trabajadores es mayor aquí. En este sentido, queremos decidir aquí el salario mínimo y las condiciones de vida de la clase trabajadora navarra, y tener un salario mínimo propio constituiría un avance en la configuración de un marco vasco de relaciones laborales que mejore las condiciones de vida de la mayoría de la sociedad a través de un reparto más justo de la riqueza.

¿Cómo podemos lograr que se establezca un salario mínimo propio?

La patronal no ha querido hacer lo que estaba en su mano, CCOO y UGT han dado la espalda a las y los trabajadores navarros y el Parlamento de Navarra teme el debate. Queremos, a través de la movilización, lograr que cambien de opinión. Llevaremos miles de firmas a los partidos políticos de Navarra, para que hagan lo que esté en su mano y pongan en marcha la propuesta de modificar el Estatuto de los Trabajadores.

MANIFESTACIÓN

5 de abril, 18.00 Baluarte (Iruña)

